

ETXEPARE LABORAL KUTXA ITZULPEN SARIA_2026

Etxepare Euskal Institutuak eta Laboral Kutxak sinatutako lankidetzaren baitan egoki iritzi diote jatorriz euskaraz idatzitako literaturaren itzulpengintza gure eremutik kanpo sustatzeari eta itzulpen lan bat saritzeko asmoz elkarlanean jarduteari. Testuinguru honetan, “Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen saria” izeneko deialdi hau egitea adostu dute, honako oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1. Xedea

Deialdi honen xedea da jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura obra baten itzulpen lan bat saritzea, euskarazko lan bat nazioartean sustatzeko xede nagusiarekin bat.

2. Sariaren izaera

Sariak itzulpenaren kalitatea bera eta argitaletxearen sustapen plangintza sarituko ditu.

Hori dela eta, saria argitaletxeak eta itzultzaileak partekatuko dute.

3. Baliabide ekonomikoak

Saria 6.000 eurokoa izango da. Zenbateko hori argitaletxeak eta itzultzaileak jasoko dute, erdibana.

Sariaz gain, 3.000 euro arteko laguntza jaso ahal izango dute saridunek sari banaketara etorri ahal izateko nahiz argitalpenaren herrialdean sustapen lanarekin jarraitzeko (aurkezpenak, ekitaldiak, publizitate kanpainak, medioetako elkarrizketak...).

Sariaren zenbateko horiei legez dagozkien atxikipenak egingo zaizkie.

4. Hautagaitzak bete beharreko baldintzak

- a) Eskabidea itzultzaileak, argitaletxeak nahiz liburugintzaren, literaturaren edo itzulpengintzaren arloko bestelako eragileren batek egin ahal izango du.
- b) Itzulpenak **2025**. urtean argitaratutakoa izan beharko du.
- c) Jatorriz euskaraz idatzi eta argitaratutako literatura obra baten itzulpena izan behar du.
- d) Etxepare Euskal Institutuaren ohiko dirulaguntza deialdiaren bidez dirulaguntza lortu duten lanak zuzenean izango dira sarirako hautagai, betiere b) eta c) baldintzak betetzen badituzte.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea, lekua eta modua

- a) Hautagaitzak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 12tik uztailaren 10era artekoa izango da, biak barne.
- b) Eskabidea posta elektronikoz bidali beharko da etxepare@etxepare.eus helbidera, honako dokumentazioarekin batera.
 1. Itzultzailearen Curriculum Vitae-a. Orrialde batekoa gehienez.
 2. Argialetxeari buruzko txostena. Txostenak ezinbestean hartu beharko ditu barne eskaera aurkeztu arte egindako sustapen-ekintzak nahiz etorkizun hurbilerako (urrira arteko) aurreikusitakoak. Lagungarri (baina ez ezinbesteko) izango delakoan, Etxepare Euskal Institutuaren webgunean egongo da eskura sustapen planaren berri emateko eredu bat.
 3. Aurkeztutako itzulpen lanaren lehen 15 orrialdeak (jatorrizkoarenak nahiz itzulpenarenak).
- c) Aipatutako epeen barruan, eskabidea osatzeko, liburuaren ale bat bidali beharko da ondorengo helbidera: Etxepare Euskal Institutua. Andre Zigarrogileen plaza 1, Tabakalera eraikina, 3. solairua, 20.012 Donostia.

Salbuespen gisa, Etxepare Euskal Institutuaren ohiko dirulaguntza deialdiaren bidez dirulaguntza lortu duten lanen kasuan, ez da eskaerarik aurkeztu beharko, baina Etxepare Euskal Institutuak hautagaitza osatzeko beharrezko informazioa eskatu ahal izango du.

6. Onartu eta baztertuen zerrendak

Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez hamar eguneko epean onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Etxepare Euskal Institutuaren webgunean. Bertan zehazten bada eskabideetakoren bat osatu behar dela edo akatsen bat dagoela, hautagaiak 10 egun naturaleko epea izango du eskaera osatzeko aurreko atalean zehaztutako bideetatik.

Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko da. Epe hori igarota, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da Etxepare Euskal Institutuaren webgunean.

7. Hautapen batzordea

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko Hautapen Batzordea eratuko da.

Honako hauek izango dira bertako kide:

- Lehendakaria:
 - Laboral Kutxako ordezkaria

- Batzordekideak:
 - Etxepare Euskal Institutuko ordezkaria
 - Arloko bi edo hiru aditu

Idazkaria: EEIko Euskara eta Kultura teknikari bat, hitz egiteko eskubidearekin, baina botorik gabe.

8. Hautapen irizpideak

Hautagaitzak honako irizpideen arabera balioetsiko dira eta guztira gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira:

- Itzulpena: gehienez 45 puntu.

Itzulpenaren atalean ondorengoak hartuko dira kontuan: itzultzailearen ibilbidea (sariak eta kritikak barne direla), lanaren kalitatea, itzulpen zaindua izatea, itzulpenaren zailtasuna eta egokitasuna eta itzulpena zuzenean jatorrizkotik egindakoa izatea.

- Argitalpena: gehienez 45 puntu.

Argitalpenaren atalean ondorengoak baloratuko dira: argitaletxearen garrantzia, argitaletxea xede kultural txertatutakoa izatea, edizioa bera, itzulpena argitaratu den sailaren kalitatea, promoziorako plana berariazkoa izatea (tokikoa, dagokion hartzaileari bideratutakoa...), webgunea eta harrera kritikoa.

Deialdi honen ondorioetarako, ez dira kontuan hartu Etxepare Euskal Institutuak bere osotasunean antolatu edo finantzatutako ekintzak.

- Genero ikuspegia (idazlearen nahiz testuaren edukiaren kasuan): 10 puntu.

Ezinbestekoa izango da lehen bi ataletan (itzulpena eta argitaletxea) gutxienez puntuazioaren erdia lotzea.

9. Hautapena

Hautapen irizpideak kontuan hartuta sortutako hurrenkerari jarraituz, Hautapen Batzordeak sarirako hautagaia aukeratuko du. Erabakia apelaezina izango da.

Edonola ere, saria esleitu gabe gelditu ahal izango da ondoko kasuetan:

- Eskabide bat ere aurkeztu ez bada.
- Hautagaitzek puntuazio orokorrean 50 puntu baino gutxiago lortzen badituzte.
- Deialdi hau argitaratu ondoren, dena delako arrazoiengatik EEIren eta Laboral Kutxaren arteko lankidetzaz hitzarmena gauzatzen ez bada edo bertan behera gelditzen bada.

10. Saria onartzea

Saridunek berariaz eta idatziz onartu beharko dute saria. Hala egiten ez badute uko egiten diotela ondorioztatuko da. Hautapen batzordeak finkatutako hurrenkerari jarraituz izendatuko da hurrengo sariduna.

Saria onartzearekin bat saridunek konpromisoa hartuko dute saritutako lanaren sustapenarekin jarraitzeko.

11. Sari banaketako ekitaldia

Sari banaketako ekitaldia Itzultzaileen Nazioarteko Egunaren inguruan izango da, Etxepare Euskal Institutuak eta Laboral Kutxak adostutako lekuan eta egunean.

12. Ustiapen eskubideak

Onarpenarekin, saria erakutsi eta erabiltzeko baimentzen ditu sarituak Etxepare Euskal Institutua eta Laboral Kutxa, erabilera komertzialerako izan ezik.

13. Ordainketa

Saria onartu eta hilabeteko epean egingo zaie ordainketa argitaletxeari eta itzultzaileari, erdibana.

Sariaz gain, 3. atalean aipatutako promoziorako 3.000 euro arteko laguntzaren zenbatekoa egindako promozio-lana justifikatu eta hilabeteko epean ordainduko zaio argitaletxeari. Horretarako, gastua justifikatu beharko du jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak aurkeztuz. Egindako promozioari buruzko txostena ere aurkeztu beharko du fakturekin batera. Horrela egin ezean, dagokion likidazioa egingo da eta soilik justifikatutako gastuak ordainduko dira.

14. Datuen babesa

Deialdi honen garapenean jaso eta tratatuko diren datu pertsonalak (bereziki pertsona fisikoen datu pertsonalak) nahitaez egin beharko dira 2016/679 Araudian (EB) jasotakoaren arabera. Araudi horrek pertsona fisikoak babesten ditu datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokionean.

15. Zalantzak eta gorabeherak

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izango da organo eskuduna deialdi honen inguruan sor daitezkeen zalantzak eta gorabeherak kudeatu eta argitzeko.